

# DANTZA IRAKASLETZAREN LAN KONTRATAZIO GIDA

## Guia de contractació laboral del Professorat de dansa



Kataluniako Dantza Profesionalen Elkartearen Agerkaria (APDC), 2017.

Egilea: Anna Blajot, abogada en Blasco Sellarès i associats, S.R.L.

Edizioa: APdC

Batzorde Nagusia 2014-17:

Gemma Calvet (lehendakaria)  
Cecilia Colacrai (lehendakari ordea)  
Montserrat Iranzo (diruzaina)  
Sebastián García Ferro (idazkaria)  
Mariona Castells (batzordekidea)  
Marta Riera (batzordekidea)  
Arantza López Medina (batzordekidea)  
Bebeto Cidra (batzordekidea)  
Maria campos (batzordekidea)  
Daniel Rosado (batzordekidea)

Kudeaketa Taldea: Cèsar Compte (kudeaketa), Sandra Bogopolsky (proiektuen koordinaketa), Xènia Guirao eta Eduardo Tabueña (komunikazioa), Gemma Daban (bazkideari atenzioa eta administraritza)

Honako kontsulta gida hau, dantza irakaskuntza ohiko ekintza profesionala duten pertsonentzat pentsatua da.

Traducción del documento “Guia de contractació laboral del Professorat de dansa”  
Elaborado por la Asociación de Profesionales de la Danza de Catalunya (APDC), 2017.  
Versión digital original en catalán en: <http://www.dansacat.org/>



# Aurkibidea

## 1. ESPARRU LEGALA

1 / 01. Dantza irakaslea naiz. Zer naiz legearen ikuspuntutik? Langilea edo autonomoa?

1 / 02. Artisten lan erregimenean kontratatu behar naute?

## 2. GIZARTE SEGURANTZA

2 / 01. Gizarte Segurantzaren alta ematea beharrezko dut?

2 / 1 / 1. Altaren frogagiriren bat eskatu dezaket?

2 / 02. Eta zer irabazten dut nik Gizarte Segurantzaren altan egoteagatik?

2 / 03. Zer egin dezaket kontratatzen nauek Gizarte Segurantzaren alta ematen ez badit?

## 3. KONTRATUAREN GARRANTZIA

3 / 01. Kontraturik behar ez dudala esaten didate. Hori horrela da? Zer egin dezaket?

3 / 02. Kontratu bat egitea onartu dute, baina orduko prezioa gutxituz. Legala da? Zer egin dezaket?

3 / 03. Zer dokumentazio behar dut kontratua egin diezadaten?

3 / 04. Zer da kontratuak jaso behar duen beharrezkoa? Zein da gutxieneko edukia?

3 / 4 / 1. Arte lanbideak, Aplikatutako arteak, Musika Ikasketak, Ile-apaindegi eta estetika ikasketak ematen dituzten eskolen estatuko hitzarmen kolektiboa.

3 / 4 / 2. 2008-2016 Kataluniako Eraginkortasun Mugatuaren Hezkuntza eta Formakuntza Ez Arautuaren Hitzarmen Kolektiboa.

3 / 4 / 3. Diru publikoarekin guztiz edo neurri batean laguntzen den Kataluniako irakaskuntza pribatuaren hitzarmen kolektiboa.

3 / 4 / 4. Diru laguntza jasotzen ez duten eta kontzertatuak ez diren erregimen orokorreko ikastetxe pribatu eta ikasketa arautuak eskaintzen dituzten IX. Hitzarmen kolektibo nazionala.

3 / 4 / 5. Kataluniako aisialdi hezigarri eta soziokulturalaren hitzarmen kolektiboa, 2005-2007. (2005eko ekainak 1eko DOGC)

3 / 05. Zein kontratu mota daude? Zein da gehien komeni zaidana?

3 / 06. Nire kontratuan "irakaslea" kategoria agertzea garrantzitsua da? Zer gertatzen da "monitore" jartzen badu?

3 / 07. Kontratuan proba denboraldi bat pasa behar dudala jartzen du. Zer da? Legala da?

3 / 08. Zer gertatzen da kontratatzen nauek kontratuaren klausulak aldatu nahi badizkit behin lanean hasi ostean?

3 / 09. Zer gertatzen da idatzizko kontraturik ez badu?

3 / 10. Zer prozedura jarraitu behar dut enpresariak ez badu kontratua betetzen? Zein da lehenengo pausua?

## 4. ORDAINSARIA

4 / 01. Zenbat eta nola kobratuko dut nire lanagatik? Ba al dago gutxieneko diru kopururik?

4 / 02. Zer hartzen du barne orduka ordaintzen didaten soldatak? Lana prestatzeko orduak (eskola-orduak ez direnak) ordaindu behar dizkirate? Eta desplazamenduak?

4 / 03. Orduko gehiago ordaindu behar didate ikastetxe batean ordu gutxi egiten badituz?

4 / 04. Zer da nomina bat eta zer esan nahi dute bertan agertzen diren datuak?

4 / 05. Zer egin dezaket behar luketena baino gutxiago ordaintzen badidate? Kobratu gabeko soldaten erreklamazioa egin dezaket? Nola?

4 / 06. Zer esan nahi du oporrak eta atsedenaldiak prorratzea?

## 5. LAN ESKUBIDE BATZUK

5 / 01. Zer gertatzen da kontratua indarrean dagoenean gaixotzen banaiz?

5 / 1 / 1. Aldi bateko ezgaitasun prestazio ekonomikoa nola kalkulatu da?

5 / 1 / 2. Nork ordaintzen du prestazioa?

5 / 02. Zer da ezgaitasun osagarria? Jasotzeko eskubidea dut?

5 / 03. Eta gaixotasunak jarraitzen duen bitartean kontratua bukatzen bada?

## DANTZA IRAKASLETZAREN LAN KONTRATAZIO GIDA

5 / 04. Eta gaixotasuna kontratua bukatu zaidanean hasten bada?

5 / 05. Ikastetxe batean nabil lanean eta istripu larri bat izan dut. Zer gertatzen da alta emanda ez banago?

### 6. LAN ESKUBIDE BATZUK

6 / 01. Nola bukatu daiteke kontratua?

6 / 02. Zer gertatzen da ikastetxea kontratuaren amaiera baino lehen utzi nahi badut?

6 / 03. Eta eskolak esaten badu kontratua aldez aurretik bukatzen dela?

6 / 04. Kontratua bukatu da, ba al daukat nolabaiteko kalte-ordainaren eskubidea?

6 / 05. Zer dokumentu eman behar dit enpresariak kontratua bukatzean?

6// 06. Lana egiteari uzten badiot langabezi prestazioa jaso dezaket?

6/ 07. Erretiroa hartu ahal izango dut?

### 7. LANA ATZERRIAN

7 / 01. Eskolak atzerrian emateko kontratatu didate. Zer edo zer egin behar dut?

### 8. BESTE EGOERA BATZUK

8 / 01. Koreografoa ere banaiz

8 / 02. Dantzaria ere banaiz

8 / 03. Zer da autonomo faltsu bat?

8 / 04. Beltzean lana egitea erabakitzen badut, zeintzuk dira arriskuak?

## 1. ESPARRU LEGALA

### 1 / 1.

## Dantza irakaslea naiz. Legearen ikuspuntutik zer naiz? Langilea edo autonomia?

Dantza eskolarekin lotzen zaituena lan harreman bat bada, langilea zara. Eskolarekin duzun harremana merkantila edo elkar lankidetzakoa bada, autonomia zara.

Kasu zehatz bakoitzaren egoera lan prestakuntzaren (laborala edo merkantila) arabera izango da. Zentzu horretan, harreman merkantil (langile autonomia) bati dagokion zerbitzu kontratuan, zereginen eta lan prestazioen hartu-eman agertuko da, salneurri edo diru kopuru baten truke.

Lan kontratuan (kontratutako langilea) aldiz, besteren batek kontratatutako pertsona batek bete beharreko zeregin eta prestazioen hartu emana agertuko da, ziurtatutako diru kopuru baten truke.

Hortaz, ziurtatutako diru kopuru batengatik lan egitea alde batera utzita, lan egiteko gela, medioak, soldata... eskaintzen dizkizun eskola batentzako lan egiten duzunean izango zara langilea.

Askotan zaila suertatzen denez harreman merkantila edo laborala den zehaztea, epaitegietan harreman laboralaren ezaugarriak lana eta ordainsariaz gain, ajenazioa eta dependentzia ere badirela ezarri dute.

Bi kontzeptu hauek- ajenazioa eta dependentzia- nahiko abstraktuak dira, egoera eta testuinguruaren arabera modu desberdinetan agertu daitezke. Horregatik, lan kontratuan identifikatu ahal izateko ondorengo ADIERAZGARRIETARA jotzen da:

#### Dependentziaren ezaugarri arruntenak ondorengoak dira:

- Enpresaren lantokira edo enpresak esandako tokira bertaratzea.
- Ordu-tegi bat bete beharra.
- Lanaren garapen pertsonala (ordezkapen egoera bereziki bateragarria da).
- Langilea enpresarioaren lan antolaketan txertatzea. Kontutan izanik enpresaria aktibitatea programatzeaz arduratzen dela.
- Langileak ez du bere lan enpresarial propiorik antolatzen.

#### Ajenazioaren beste ezaugarri komun batzuk hauek dira:

- Langileak, enpresariari egindako lanak eman edo bere eskura jartzen ditu.
- Enpresariari dagokio merkatuaren harremanen erabakiak hartzea edo eta publikoari dagozkionak. Adibidez salneurri eta tarifak ezartzen ditu, bezeroak aukeratzen ditu, zein bezero artatuko diren zehaztu, lanaren ordainsaria modu finkoa edo aldizkakoa izango den ezartzen du eta ordainketa kopurua kalkulatu du.

#### Eskola eta langilearen arteko harremana laborala izango zen adibidez honako kasuetan:

- a) eskolak beharrezkoa den antolaketa akademikoa dauka irakasleak klasea eman ahal izateko
- b) ikastaroak publikoari zabaldu eta eskaintzen ditu
- c) ikasleen ikastaroak antolatzen ditu

- d) ikastaroen ordutegiak zehazten ditu
- e) ikastaroen zenbatekoa kobratzen du

Laburbilduz, HARREMAN LABORALAREN ezaugarriak ematen badira, langile bat zara eta ondorioz, lan kontratu bat egin behar dizute.

## 1 / 2.

### Artisten lan erregimenean kontratatu behar naute?

Ez. Ikuskizun publikoetan Artisten lan harreman bereziak arautzen du nolakoak izan behar duten: ikuskizun horiek antolatzen dituenak (edo enpresariak) bere antolaketa esparru eta zuzendaritzapean eta bere borondatez ekintza artistikoetara jarduten duenaren arteko harremana.

Irakaskuntza zereginak ez dira ekintza artistikoak.

Beraz, eskola eta irakaslearen arteko lan harremana ez da berezia, arrunta da. Eta erregularizatzen duen alor normatiboa Langileen Estatutua da, aplikagarri den talde hitzarmenarekin batera.

## 2. GIZARTE SEGURANTZA

## 2 / 1.

### Gizarte Segurantzaren alta ematea beharrezkoa dut?

Bai. Kontratatzaileak, hau da, eskolaren titularrak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean alta eman behar dizu zure zerbitzuak egiten hasi aurretik. Hau da, lanean hasi aurretik.

Zure alta tramitatu ahal izateko, zure datu pertsonalak eta zure NANaren fotokopia bat eta zure Gizarte Segurantzaren afiliazio zenbakia eman behar dituzu.

\* Orain arte ez bazara inoiz Gizarte Segurantzaren altan egon, zure alta tramitzeko afiliazio zenbakia eskatu behar duzu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean.

## 2 / 1 / 1.

### Altaren frogagiriren bat eskatu dezaket?

Altan eman dizutela ziurtatu nahi baduzu bi aukera dituzu. Batetik kontratatu zaituenari altaren kopia bat eskatu. Beste aukera da Bizitza Laborala eskatzea Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean ondorengo telefonora deituz 901 50 20 50. Diruzaintzak zure mugikorraren zenbakia gaurkotua badu SMS bat bidaliko dizu Gizarte Segurantzaren altan edo bajan ematen zaren bakoitzeko.

## 2 / 2.

### Eta zer irabazten dut nik Gizarte Segurantzaren altan egoteagatik?

Gizarte Segurantzaren bere langileak altan ematea derrigorrezkoa da enpresariarentzat. Zuretzat berriz, sistema publikoko partaide izatea esan nahi du. Sistema hori diruz lagundu behar duzu, baina behar izanez gero disfrutatzeko eskubidea izango duzu.

Gaixotzen zarenean eta ondorioz lanik egiten ez duzunean Gizarte Segurantzak prestazioa ordainduko dizu. Istripu bat izanez gero, berdin. Lanik gabe geratzen bazara, langabeziaren prestazioa jasoko duzu eta erretiroa hartzeko garaia iristean, eskubide hori ere izango duzu. Hala ere, egoera bakoitzean eskatzen diren baldintzak bete beharko dira prestazio horiek jasotzeko. (Orokorrean denbora zehatz bat izan behar duzu kotizatuta).

## 2 / 3.

### Zer egin dezaket kontratatzen nauenak Gizarte Segurantzaren altan ematen ez badit?

Eskolak boluntarioki ez bazaitu altan ematen, lan egiten duzun tokian bilatu konponbidea. Langileak ordezkatzeko dituzten atalen bidez: enpresa batzordea, delegatu sindikalak eta enpresa delegatuak.

Kataluniako Dantza Profesionalen Elkartera ere joateko aukera daukazu eta aholkatuko zaituzte.

Beste baliabide bat, Kataluniako Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritza Partzueragoan gertaera hori salatzea da.

Salaketak ondorengoak bete behar du:

- Idatziz aurkeztu behar da.
- Ezinezkoa da modu anonimoan egitea.

**Salaketaren idatziak ondorengo informazioa izan behar du:**

- a) Salaketa egiten duen pertsonaren identifikazio datuak eta sinadura.
- b) Gertaeraren lekukoak.
- c) Gertaeraren data eta tokia.
- d) Arau-haustea egin duen enpresariaren identifikazioa.
- e) Salaketa jartzen duenaren arabera garrantzia duen beste ñabardura batzuk, adibidez: egiten den lan jardunaldia, lanaldia, ordutegia, atala, etabar.

Ikuskariak gertaera baieztatu ahal izateko salaketan informazio guztia jartzea garrantzia handia du, zehazki nolako lan baldintzetan lanean ari zaren jakiteko.

Bada, beharrezkoa da zure harremanetako datuak jartzea, bai informazio gehiago eskatu behar badizute, edo eta inspektzioaren emaitza bidaltzeko.

**Aurkezteko lekuak:**

**Bartzelona:**

Travessera de Gràcia, 303-311 (08025) Bartzelona  
Tel. 93 624 75 00 - Fax 93 554 78 66  
Posta elektronikoa: [itc.barcelona@gencat.cat](mailto:itc.barcelona@gencat.cat)

**Girona:**

Cr. Migdia, 50 (17002) Girona  
Tel. 972 94 23 10 - Fax 972 94 23 18  
Posta elektronikoa: [itc.girona@gencat.cat](mailto:itc.girona@gencat.cat)

**Tarragona:**

Av. del Cardenal Vidal i Barraquer, 20 (43005) Tarragona  
Tel. 977 23 37 14 - Fax 977 25 39 85  
Posta elektronikoa: [itc.tarragona@gencat.cat](mailto:itc.tarragona@gencat.cat)

**Lleida:**

Cr. Riu Besòs, 2 (25001) Lleida  
Tel. 973 21 63 80 - Fax 973 20 49 43  
Posta elektronikoa: [itc.lleida@gencat.cat](mailto:itc.lleida@gencat.cat)

Informazio gehiago webgune honetan aurkitu dezakezu: [www.inspecciotreball.gencat.cat](http://www.inspecciotreball.gencat.cat)

## 3. KONTRATUAREN GARRANTZIA

### 3 / 1.

Kontraturik behar ez dudala esaten didate. Hori horrela da? Zer egin dezaket?

Aurretik aipatutako baldintzak betetzen badituzu harreman laborala da eta eskola kontratu bat egitera behartuta dago. Eskola batek kontratatzen zaituenean, kontratu bat egin behar dizu eta hurrengo 10 egunetan kontratuaren nondik norakoak komunikatu behar dizkio okupazio horietaz arduratzen diren zerbitzu publikoei contra@ aplikazioaren bitartez.

Kontutan izan behar duzu lan kontratua idatziz edo hitzez gauzatu daitekeela. Nahitaezkoa da kontratua idatziz gauzatzea neurri legal batek horrela eskatzen badu eta ondorengo kontratutan beti horrela izan beharko du:

- 1) Praktikak.
- 2) Formakuntza.
- 3) Ikuskizun edo zerbitzu jakin bat egiteko.
- 4) Jardunaldi partzialean, finkoan etenekin eta errelebotan.
- 5) Etxekoa.
- 6) Atzerrian dauden Espainiako enpresentzako, Espainian bertan kontratatutako langileak.
- 7) Denbora zehatz bateko diren kontratuak, horiek lau aste baino gehiagoko direnean.

Bestalde, lan kontratua edozein delarik idatziz gauzatzea eskatu dezakezu. Eskatuta ezezkoa ematen badizute goian ikusitako hiru bideak jarraitu ditzakezu errekurtsioa egiteko (eskolako ordezkari organoak, Kataluniako dantza profesionalen elkarte (APDC) edo Kataluniako Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritza Partzuergoan).

## 3 / 2.

### Kontratu bat egitea onartu dute, baina orduko prezioa gutxituz. Legala da? Zer egin dezaket?

- Zure lan orduko ordainsariak, legeak eta zure harreman laboralean ezartzen den hitzarmenak diru-kopuru minimo bat ezarrita du.
- Sekula, ezingo dizute legeak eta dagokizun hitzarmenak ezartzen duen minimoa baino gutxiago ordaindu.
- Beraz, legala ez dena legalki ezarrita dagoena baino gutxiago kobratzea eta eskolarekin lan harremanik ez izatea da.

Hori jakinda, hipotetikoki orain arte faktura bidez kobratzen bazenuen eta eskolak lan kontratu bat nomina bitartez kobratzeko proposamena egiten badizu, baina orduko prezioa gutxituz, ondorengo aukerak daukazu:

a) Proposamena onartu

b) Ez onartu

c) Orain arte izandako egoera irregularra salatu. Seguruenik, nominara pasatzeko proposatzen badizute, oraingo egoera (kobratzea faktura bitartez) enpresarentzat arrisku bat izan daitekeelako izango da.

Esan dugunez, sarritan, faktura baten atzean berehalako harreman laboral bat dator, hortaz horrelako proposamenak (harreman merkantil batetik laboral batera pasatzea) askotan ematen dira.

Prezioaren beherakadaren arrazoia, ez baduzu onartzen ere, honakoa da: kontratua egitera pasatzean eskolarentzako kostea handitu egiten da, gutxi gorabehera %33ko igoera du soldatak.

Adibidea:

- Autonomo bat kontratatzearen kostua eskusiboki honek kobratzen duen gordina da, hau da, fakturaren oinarria.
- Langile bat kontratatzearen kostua, langileak kobratzen duen gordinaz gain, Gizarte Segurantzaren kuota %33 gutxi gorabehera ere ordaindu behar du enpresariak. Gainera, eskolak laneko harremanak kudeatuko dituen pertsona bat edo kanpoko enpresa baten kostua hartzen du bere gain (kontratuak eta nominak egiteko, Gizarte Segurantzaren seguruak bidali eta ordainketak egiteko, zergen likidazioa, etabar)

Desberdintasun horrengatik hainbat eskolek irakasle autonomoak nahiago dituzte eta ez langileak. Eta langileak izateko aldaketa proposatzen dutenean, orduko prezioa gutxitzen saiatzen dira.

## 3 / 3.

### Zer dokumentu behar ditut kontratua egin diezadaten?

Lan kontratua egin ahal izateko zure NAN-aren kopia bat eta Gizarte Segurantzaren afiliazio zenbakia eman behar dituzu.

\* Ez bazara sekula Gizarte Segurantzaren afiliatua egon, lehenagotik lortu behar duzu afiliazio zenbakia Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren bulegotan.

\* Gizarte segurantzaren afiliazio zenbakia lortzeko zure NAN edo ANZ eraman behar duzu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren edozein bulegotara.

Kontratatzeko zaituenak zure identifikazio datuak, helbidea, ikasketen maila, egoera pertsonal eta familiarra jakin behar ditu. Baita langabezia zauden eta noiztik.



## 3 / 4.

### Zer da kontratuak jaso behar duen beharrezkoa? Zein da gutxieneko edukia?

**Kontratu batek jaso beharreko gutxieneko informazioa hau da:**

- Enpresariaren eta kontratatutako pertsonaren identifikazioa
- Kontratuaren helburua
- Lanaren hasiera data
- Iraupena
- Lan jorjala
- Ordain-saria
- Kontratuaren frogako iraupena, izanez gero.

Beharrezkoa da bi alderdiek errespetatzea eta betetzea kontratuan datozen akordioak.

\* Horregatik da hain garrantzitsua kontratuan datorrena ulertzea eta zer suposatzen duen jakitea. Zalantzak badituzu edo ez baduzu argi ikusten, lagunduko zaituen norbaitekin erreparatu sinatu aurretik. Dantza Profesionalen Elkarateak orientatzen lagunduko zaituen aholkularitza legalaren zerbitzua eskaintzen du.

**Jakin behar duzu kontratuak esaten duenaren gainetik lan baldintzak (lan orduak, atsedanak, ordain-saria, oporrak...) ondorengoa errespetatu behar dutela:**

- Legea (langileen estatutua eta aplikatu daitezkeen beste zenbait arau)
- Lan harremanetan aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa.

Hau da, kontratuan adosten dituzuen baldintzak, hitzarmen kolektiboan datozenen berdinak edo hobeak izan behar dute irakaslearentzat.

\* Jakin behar duzu hitzarmen kolektiboa langileen eta enpresariaren ordezkariak lortzen duten adostasun bat dela. Hori indarrean dagoen bitartean, lan baldintzak, eskubideak eta betebeharrak zein izango diren zehazten ditu.

\* Negoziatzen dituzten alderdien arabera, eta nori eragiten dion kontuan hartuz, desberdinak izan daitezke, jarrain ikus dezakegun bezala:

**a)** Enpresako hitzarmena (Eskolan aplikatu daiteke soilik).

**b)** Eskolaren eskumena duen udaletxeko edo autonomia-erkidegoko langileei ezarri beharreko hitzarmena; Kataluniako Jaurlearitzaren langileen kasua esate baterako.

**c)** Aktibitate alorreko hitzarmena. Horien artean, sarritan dantza eskoletan ezartzen direnak hauek dira:

\* Jakin behar duzu ezarri beharreko hitzarmena lan kontratuan zehaztuta egon behar duela (Normalean azken klausuletan egoten da).

\* Hitzarmen bat edo beste indarrean jartzeko erabakia, aplikazio-eremua zein den zehazten du.

Sektoreko beste hitzarmen batzuk egon daitezkeela kontuan hartuta, dantza eskolak eta bere langileentzat honakoak aukeratu ditugu:

### 3 / 4 / 1.

Arte lanbideak, Aplikatutako Arteak, Musika Ikasketak, Ile-apaindegi eta Estetika Ikasketak ematen dituzten eskolen estatuko hitzarmen kolektiboa.

Espainiako estatuan indarrean dagoen hitzarmen hau, ikasketa espezializatuak eta arautuak ematen diren eskoletako langileei eragiten die. Ikasketa hauek izaera profesionala dute ala nola, ile-apaindegi eta estetika ikasketak, araututako musika ikasketak (musika eskoletan ematen direnak barne), aplikatutako arteak eta arte lanbideak. Aurreko enpresek arautu gabeko ikasketa berdinak ematen dituztenean araututakoekin batera, aplikatuko zaie.

Argitaratu zen azkeneko hitzarmena indarrean egon da 2013/10/04tik 2017/12/30ra.

### 3 / 4 / 2.

2008-2016 Kataluniako Eraginkortasun Mugatuaren Hezkuntza eta Formakuntza Ez Arautuaren Hitzarmen Kolektiboa.

Titulartasun pribatuko enpresa guztiei aplikatzen zaie, lanbide ikaskuntza eta formakuntza profesional pribatua eta orokorrean formakuntza ez arautua eskaintzen dutenei (ile-apaindegi eta estetika, terapia alternatiboak, hizkuntzak, informatika, ikaskuntza artistikoak eta musikalak, kirola, komunikazioa, irudia eta soinua, sanitarioa, kudeaketa administratibo eta enpresariala, lan arriskuen prebentzioa, oposaketako prestakuntza, laguntza eskolarra, etabar) .

Indarrean: 2008/01/01tik 2016/12/31ra.

### 3 / 4 / 3.

Diru publikoarekin guztiz edo neurri batean laguntzen den Kataluniako irakaskuntza pribatuaren hitzarmen kolektiboa.

Indarrean jartzeko eremua: hitzarmen hau ondorengo hezkuntza ematen duten ikastetxe pribatu eta langileei eragiten die.

- a) Haur Hezkuntza (1. zikloa) hezkuntza orokorreko ikastetxe baten barruan dagoena.
- b) Haur Hezkuntza (2. zikloa) hezkuntza orokorreko ikastetxe batean dagoena.
- c) Lehen Hezkuntza.
- d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.
- e) Erdi eta Goi mailako heziketa zikloak.
- f) Araututako helduen hezkuntza iraunkorra.
- g) Ikastetxe nagusiak eta txikiak, ikasleen egoitzak eta gazte egoitzak.
- h) Aplikatutako arteak eta lanbide artistikoak irakasten dituzten ikastetxeak eta goian aipatutako b,d,e,f,g, taldeen ikasketa berdintsu eta homologatuak eskaintzen dituzten ikastetxeak.

Iraunaldia: 2010/01/01tik 2014/12/31ra (automatikoki urtero luzatuko da, salaketa egon ezean).

### 3 / 4 / 4.

Diru laguntza jasotzen ez duten eta kontzertatuak ez diren erregimen orokorreko ikastetxe pribatu eta ikasketa arautuak eskaintzen dituzten IX. Hitzarmen kolektibo nazionala.

Diru laguntza jasotzen ez duten eta kontzertatuak ez diren erregimen orokorreko ikastetxe pribatuei eta ikasketa arautuak eskaintzen dituzten ikastetxeei eragiten die. Bere nazionalitatea edo izaera zein den berdin duelarik, ondorengo ikasketak eskaintzen dituen erakundeei:

- a) Haur Hezkuntza (integratua).
- b) Lehen Hezkuntza.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

Iraunaldia 2011/05/27tik 2013/12/31ra eta automatikoki urtero luzatuko da, salaketa egon ezean.

### 3 / 4 / 5.

## Kataluniako aisialdi hezigarri eta soziokulturalaren hitzarmen kolektiboa, 2005-2007. (2005eko ekainak 1eko DOGC)

Hitzarmen horrek aisialdi hezigarria eta soziokulturala eskaintzen duten enpresa eta/edo erakunde pribatuen lan baldintzak zehazten ditu. Eskaintzen dituzten ekintzak hezkuntza formalaren osagarri dira, pertsonaren giza abileziak eta ohitura osasuntsuak garatzeko asmoz, pertsonaren hezkuntza integrala bilatuz. Ondorengo ekintzen bidez:

a) Eskolako testuinguruan edo horretatik kanpo egiten den denbora libreko hezkuntza ekintza: eskola garraioan zaintza eta kustodia, eguerdiko ekintzak, jangelakoak, jolastokikoak eta eskolaz kanpoko ekintzak.

b) Zerbitzu soziokulturalen antolaketa eta kudeaketa, hornikuntzan zein gizarte eta kultura programetan, gizarte eta kultur etxeetara zuzendutakoak adibidez, liburutegiak, irakurketa gelak, gazte informazio zerbitzuak, ludotekak, haur etxeak, kolonia etxeak, haur eta gazte aterpeak, ingurugiro hezkuntza programak eta ekintzak, eskolaz kanpoko ekintzak, kultura asteak, erakusketak, ondarea dinamizatzeko ekintzak, eta orokorrean edozein kudeaketa eta hornidura, programak eta giza komunitate ekintza eta ekintza kultural hezitzaileak, aisialdian eta edozein adinetarako eskaintzen dituztenak.

Hitzarmenak eremu funtzionalaren zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten sekzio ezberdinei eragiten die. Beraz, hitzarmenarekin zerikusia dutenen zerrenda zabala da eta jadanik sortua den ala sortzeko dagoen edozein ekintza sartu daiteke zerrenda horretan. Beti ere bere egitekoa goian esandakoarekin bat badator.

\* [Aipatutako hitzarmenen testuak hemen aurkituko dituzu:](http://www.dansacat.org/recursos/16/)

### 3 / 5.

## Zer kontratu mota daude? Zein da gehien komeni zaidana?

Gaur egun lau kontratu mota daude:

- 1) Mugagabea
- 2) Aldi batekoa
- 3) Formakuntzako
- 4) Praktiketako

Hauetaz gain, kontratu aniztasun handia dago, horien luzeraren arabera, horien helburuaren arabera, sinatzen den langile taldearen arabera (langabetuak, gazteak, helduak, desgaituak...) eta kontratua gauzatzeko garaian, kontratatzeko indarrean dauden programen arabera. Orokorrean dantzaren irakaskuntzan gehien ematen diren kontratuak hauek dira:

- Kontratu mugagabeak (horien barruan: ohikoak, kontratazioa sustatzen dutenak, Gizarte Segurantzaren hobariak dauzkatenak edo laguntzarik ez dutenak langabezia dagoen pertsonari kontratatzen den kontuan hartuz, etabar.). Modalitate horren barruan etendun finkoak daude, jarraian ikusiko dugun moduan.

## DANTZA IRAKASLETZAREN LAN KONTRATAZIO GIDA

- Iraupen jakinekoa (horietan bereiztu ditzakegu ekoizpenaren, lan mota edo zerbitzu motaren arabera behin behinekoak direnak eta bitartekoak edo lanpostua gordetzen zaien pertsonari ordezkatzeko direnak.
- Formakuntza kontratuak (praktika edo formakuntzako kontratuak, kontratatzen den pertsonak ikasketa tituluak dituen edo ez dituen arabera).

Kontratu mota hauek jardunaldi murriztukoak edo jardunaldi osokoak izan daitezke. Dantza irakasleen artean ohikoena jardunaldi murriztuan kontratatzea da, egunean astean edo urtean ordu batzuk lan egiteko.

\* [Eskolak astean ordu bete lan egiteko kontratatu zaitzake.](#)

Irakaskuntza sektorean maiz ematen den kontratua etendun finkoa da, izenak dioen bezala kontratu finko bat da, baina ondorengo ezaugarriak ditu: 1) lan egonkor bat da; 2) lanik gabeko denboraldiak dira horren bereizgarri nagusia; 3) lana berriro sortzen denean langileak eskubidea du enpresak bera kontratatzeko. Kontratu hori derrigorrez idatziz gauzatu behar da eta ondorengo puntuak jaso behar ditu:

- Jardueraren iraupenaren gutxi gorabeherakoa.
- Ezarri beharreko talde hitzarmenak dionaren arabera zein maila eta nola deituko den.
- Lan egunaren gutxi gorabeherakoa eta ordutegiaren banaketa.

Esan dugun moduan, kontratu horiek lan denboraldiak dudazkoak direnean erabiltzen dira. Hau da, ez denean jakiten noiz egongo den lana eta noiz ez. Lan denboraldiak zein egunetan izango diren bi alderdien artean jakina baldin bada, lan kontratu mugagabea eta lanaldi murriztukoak behar du izan.

**Eta bi horietatik zein kontratu da zuretzat interesgarriena?** Esan genezake, errealitatera gehien hurbiltzen den hori izango dela komenigarriena. Adibidez, bajaran dagoen langile bat ordezkatzeko kontratatzen bazaituzte interino kontratua litzake egokiena. Dantza irakasle plaza bat betetzeko kontratatzen bazaituzte kontratu mugagabe bat litzake egokiena (jardunaldi osokoa edo jardunaldi murriztukoa, lan egin behar dituzun orduen arabera).

Gogoratu, egungo araudiak lan kontratuak berez mugagabeak izatea behartzen du. Aldi bateko kontratua oso ondo justifikatuz gero soilik egin daiteke.

## 3 / 6.

### Nire kontratuan “irakaslea” kategoria agertzea garrantzitsua da? Zer gertatzen da “monitore” jartzen badu?

Garrantzitsua da kontratatzen zaituzten kategoria edo talde profesionala zure kontratazioari dagokiona izatea, bestela, zure eskubide eta betebeharrak (adibidez: soldata, jardunaldiaren banaketa, baimenak, proba denboraldiak, aurre-abisuak, etabar) kontratuan ipintzen duen kategoriari dagozkionak izango dira. Eta normalean, Hitzarmen Kolektiboetan ezartzen dira baldintza horiek.

Jarri dezagun adibide bat, demagun zure lan harremana Kataluniako Eraginkortasun Mugatuaren Hezkuntza eta Formakuntza Ez Arautuaren Hitzarmen Kolektiboaren barruan dagoela. Hitzarmen hori pertsona hezitzailearen jardunaldia 1.300 ordukoa da urteko (gehienez 1.230 eskola-orduak) eta monitoreen jardunaldia 1.634. Hau da, Hitzarmenaren arabera, monitore batek jardunaldi osoan kontratatua, irakasle batek baino 334 ordu gehiago (42 egun) egin behar ditu lan.

Hitzarmen berean ere kategoria baten eta bestearen arteko desberdintasuna funtsezkoa da: Hezitzailearen urteko ordainsaria 17.332€koa da eta hiru urtekoen eskubidea dauka (denbora aurrera pasatzeagatik soilik ematen den ordainsaria) eta monitorearen urteko ordainsaria 9.436€ eta ez dauka hiru urtekoen eskubiderik. Hortaz, monitoreek hezitzaileek baino %46 gutxiago kobratzen dute.

### 3 / 7.

## Kontratuan proba denboraldi bat pasa behar dudala jartzen du. Zer da? Legala da?

Kontratuan proba denboraldia pasa behar duela dioenean, kontratuaren sinatzaileek (eskola eta irakaslea) hau bertan behera utzi dezakete inongo arrazoirik eman gabe. Hori bai, lan egindako egunak ordaindu beharko dira. Kontratu batean dauden bi alderdiek eskubidea dute frogatzeko ea sinatutako kontratua onuragarria den . Kontratu batean froga denboraldia egoteak horixe ahalbidetzen du. Alderdietako batek kontratua bertan behera utzi nahi badu, inongo penalizaziorik ez du izango. Hau da, ez du inongo kalte ordainik eman beharko eskolari, ezta denborarekin abisatu beharko ere. Akordio hau izenpetzea posible eta legala da. Froga denboraldiaren iraupena aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboari dagokion epea errespetatu behar du, inoiz ez du luzeagoa izan behar.

Kontratuan azaltzen den froga denboraldia Hitzarmen kolektiboari dagokiona baino luzeagoa bada, itun hau baliogabetu egiten da eta irakasleak eskolaren aurka erreklamazioa jarri dezake.

Ondorioz, eskolak kontratua bertan behera uztea erabakitzen badu ez duzulako froga denboraldia gainditu, begiratu ea froga denboraldiaren iraupena zuri dagokizun hitzarmen kolektiboarekin bat datorren.

### 3 / 8.

## Zer gertatzen da kontratatzen didanak kontratuaren klausulak aldatu nahi badizkit behin lanean hasi ostean?

Hemen honakoak desberdindu behar dira:

- a) Balditzen aldakuntzak modu adostuan enpresaren eta irakaslearen artean.
  - Elkarrekiko adostasuna bada, aldakuntzak nahi diren beste egin daitezke.
  - Muga bakarra dago: aldakuntza horiek langileen eskubideak ezin dituzte urratu ez eta langileen funtsezko eskubideei modu ezkorrean eragin.
- b) Kontratatzaileak edo ikastetxeak inposatzen dituztenean aldakuntzak.
  - Aldaketak ez dira posible izango, ez badaude ondo arrazoituak.
  - Arrazoi ekonomiko, tekniko, edo ekoizpen eta antolaketa arrazoimenak baldin badaude aldaketak egitea posible izango da. Kasu horietan komunikazio, negoziazio, justifikazio eta jakinarazpen prozesu egokia jarraitu behar da.

Azken egoera hori ematen bada, ezarri dizkizuten lan baldintza berriak onartu behar dituzu, naiz eta horiei epaitegietan errekurtsioa jartzeko aukera duzun. Zurekin adostu gabe lan orduak, soldata, ordutegia edo oinarrizko zereginak aldatu baldin badizkizute, zure kontratua konpontzeko eskubidea izango duzu eta gainera kalte ordainak jasotzeko eskubidea.

## 3 / 9.

### Zer gertatzen da idatzizko kontraturik ez badut?

Idatzizko kontraturik ez baduzu, eskolarekin duzun harreman laborala jardunaldi osokoa eta mugagabea dela ondorioztatzen da.

\* Gogora ezazu lan munduan gauzak diren bezala direla, eta ez alderdiek esaten duten bezala. Beraz lan harremana egon badago kontratua sinatuta izan edo ez izan.

## 3 / 10.

### Zer prozedura jarraitu behar dut enpresariak ez badu kontratua betetzen? Zein da lehen pausua?

Lehenengo gauza kontratatu zaituen pertsonarekin hitz egitea litzake.

#### Beste aukera batzuk ere badaude:

- Langileen ordezkariatza atalera joan (enpresa batzordea edo pertsonalaren ordezkaria).
- Ikastetxearekin negoziatzen lagunduko zaituen norbaitekin hitz egin, adibidez Kataluniako Dantza Profesionalen Elkartea.
- Lan ikuskaritzan salaketa jarri.
- Profesional baten laguntzaz, aurretiko adiskidetze administratiboa lortzeko eskaera egin. Ez bada adostasunik lortzen salaketa judiziala jarri dagokion epaitegian.

Ematen dizkizugun aukeretatik bat aukeratzeko orduan egoeraren izaera eta ezaugarriak hartu beha dira kontuan. Argitu beharko da zer betebeharretan ari diren huts egiten, huts egitea askotan ematen den edo kasu isolatua den, zer bilatu edo lortu nahi duzun...

## 4. ORDAINSARIA

## 4 / 1.

### Zenbat eta nola kobratuko dut nire lanagatik? Zenbateko gutxieneko bat dago?

Izenpetu duzuna kobratuko duzu eta gutxienez dagokizun hitzarmen kolektiboan datorrena izan behar du. Hilero kobratuko duzu (transferentzia, txeke, esku dirutan...) zure nominan datorren zenbatekoa eskolak prestatu eta emango dizuna.

#### Kontutan izan adosten duzun zenbatekoa GORDINA izango dela eta ondorioz deskontu batzuk jasango dituela:

- Langileari dagokion Gizarte Segurantzaren zatia (gutxi gorabehera %6,4).
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez egiten dena. Hau, urtean kobratzen den diru kopuruaren araberakoa izango da.

Beraz, zure kontratuan azalduko den diru kopurua ez da kobratuko duzuna izango, errentan deklaratu beharko duzun diru kopuru gordina baizik.

Ez baduzu hitzartu zenbat diru kobratuko duzun, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan agertzen den soldata jaso behar duzu gutxienez. Ez bazatoz bat inongo hitzarmenekin, lanbide-arte go gutxieneko soldata jaso behar duzu. Soldata hau urtero zehazten da.

- 2016. urtean lanbide-arte go gutxieneko soldata egunean 21,84€ dira, 655,20€ hilabeteetan eta 9.172,80€ urtean.

Espainiako legediak urtean aparteko bi paga jasotzeko eskubidea ematen die langileei. Bi paga horiek udan eta eguberritan jasoko dira. Halere, aukera dago aparteko bi paga horiek hilabete go soldataren barruan sartzea, hamabi hilabeteetan berdina kobratuz.

## 4 / 2.

### Zer hartzen du barne orduka ordaintzen didaten soldatak? Lana prestatzeko orduak (eskola orduak ez direnak) ordaindu behar al dizkirate? Eta desplazamenduak?

Kontutan hartzekoak:

- Jaso behar duzun gutxieneko soldata zehaztuta dago aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan.
- Gida honetan jorratu ditugun hitzarmenek (Arte lanbideak, Aplikatutako arteak, Musika Ikasketak, Ile-apaindegi eta estetika ikasketak ematen dituzten eskolen estatuko hitzarmen kolektiboak; 2008-2016ko Kataluniako Eraginkortasun Mugatuaren Hezkuntza eta Formakuntza Ez Arautuaren Hitzarmen Kolektiboak ; 2010-2014ko diru publikoarekin guztiz edo neurri batean laguntzen den Kataluniako irakaskuntza pribatuaren hitzarmen kolektiboak; Diru laguntza jasotzen ez duten eta kontzertatuak ez diren, erregimen orokorreko ikastetxe pribatu eta ikasketa arautuak eskaintzen dituzten IX. Hitzarmen kolektibo nazionala; Kataluniako aisialdi hezitzailea eta soziokulturalaren hitzarmen kolektiboak, 2005-2007. Ez dute bere gain hartzen orduka ordaintzen den soldatarik.
- Hitzarmenak soldatak zehazten dituzte. Soldata hauek hilabete go izaten dira eta jardunaldi osoa lan egiten duen langilearentzat.
- Horrek, zuk ez baduzu jardunaldi osoan lan egiten (ez dituzu eguneko lan ordu guztiak egiten edo ez duzu asteko lan egun guztietan lan egiten) zure soldata, lan egiten dituzun orduen proportzioaren arabera izan behar duela esan nahi du.

**Eta ordaintzen dizutenak zer hartu behar du barne?** Zure hitzarmenak aurreikusten dituen kontzeptuak, eta eskola orduak eta eskola orduak ez direnak. Hau da, orduka jasotzen baduzu zure soldata eta ez baduzu ezer gehiago jasotzen, zure soldatak hitzarmenean aurreikusitako kontzeptu guztiak (soldatazkoak, soldataz kanpokoak, desplazamenduak, aparteko pagak, gaueko, lantokiko edo bitarteko osagarriak, eskola orduak, eskola orduak ez direnak...) izan behar ditu.

**Desplazamenduei buruz,** pentsatu behar duzu eskolak desplazamenduak ordaindu behar dizkizula dantza saioak emateko betiko lantokia duzun herritik beste batera joan behar duzunean.

\* Bitxikeri bat: Kataluniako Eraginkortasun Mugatuaren Hezkuntza eta Formakuntza Ez Arautuaren Hitzarmen Kolektiboan esaten duenez, abisurik gabe saio bat bertan behera geratzen bada, ordukako soldata dutenen kasuan, ordu hori ordaindu egin beharko dela. Aldi berean, ikastetxeak langileari eskatu diezaioke beste lan mota batzuk egiteko. Beti ere bere profesio taldeari dagozkionak izan behar dute.

## 4 / 3.

### Orduko gehiago ordaindu behar didate ikastetxe batean lan ordu gutxi egiten badituz?

Ez. Egiaztatu behar duzuna, ordaintzen dizuten ordu bakoitzeko hitzarmenean datozen kontzeptu guztiak barne etortzea da.

## 4 / 4.

### Zer da nomina bat eta zer esan nahi dute bertan agertzen diren datuak?

Nomina batek edo soldata orri batek bere izenak dioen bezala langileen soldata azaltzen du. Behin sinatu ondoren enpresarioak dirua entregatu duenaren froga da.

Nominak langile eta kontratatzailearen (enpresa edo ikastetxearen titularrak bere izaera juridikoa dena delakoa) informazioa jaso behar du, horrela irakasleak ezagutu dezake nork kontratatu duen, zein den bere zerga identifikazio kodea, Gizarte Segurantzaren zenbakia eta helbidea.

\* Kontratatzailearen datuak agertzea oso garrantzitsua da, bere betebeharrak bete ezean jakingo baituzu nora eta nola egin zure kexa.

Datu ekonomikoei dagokionez, nominan zure soldata osatzen duten zenbatekoak agertuko dira. Zenbateko horien soldata kontzeptu desberdinak ere agertuko dira. Adibidez zure soldatak aparteko pagak barne hartzen dituen ala ez, desplazamendu osagarri bat hitzartuta ote duzun, dietak... ikusteko aukera emanez.

Zure soldatak jasaten dituen kenkariak ere aurkituko dituzu. Gizarte Segurantzaren kotizazioari dagokiona eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokion erretentzioa.

\* Gogoratu nominan zuri dagozkizun zergak deskontatzen direla, hau da, soldata gordinari kentzen zaio gizarte segurantzari egin beharreko kotizazioa eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokion erretentzioa.

Zenbateko netoa jasoko duzun diru kopurua da. Soldata gordinari egin beharreko kenkariak egin ondoren geratzen den diru kopurua da.

Nominan agertzen den datu garrantzitsu bat da Gizarte Segurantzari egiten den ekarpena. Zifra, kotizazio base moduan agertuko da. Horren arabera Gizarte Segurantzaren hainbat prestazio (langabezi prestazioa, erretiroa, gaixotasun edo amatasun prestazioak...) kalkulatu dira.

Nomina puntualki emateko eskatzea garrantzitsua da, lan harremanaren froga agiria izateaz gain, dagokizun soldata baino gutxiago jasoz gero, erreklamazioa egiteko aukera ematen baituzu. Nomina edukitzeak kalte-ordaina (kontratua bukatzean edo lanetik botatzean), gaixotasun, langabezi edo erretiro prestazioak kalkulatzeko aukera ematen du.



Errentaren aitortpena egiteko ere baliogarria izango zaizu.

\* Kontutan hartzekoa: Nomina sinatzen baduzu, dirua jaso duzula sinatzen ari zara. Beraz, ez sinatu inoiz nomina bat dirurik jaso gabe. Nominaren kontzeptuekin edo diru kopuruarekin ez bazaude ados ez sinatu nominaren adostasuna.

Nominan, dirua jasotakoan konforme geratzen zarela jartzen badu eta lan harremanari dagozkion kontzeptu ezberdinengatik ez badizute diru gehiago eman behar, idatzi eskuz ez zaudela ados. Dirua jaso duzula, baina ez zaudela ados jarri dezakezu.

## 4 / 5.

### Zer egin dezaket behar luketena baino gutxiago ordaintzen badidate? Kobratu gabeko soldaten erreklamazioa egin dezaket? Nola?

Aplikatu behar dizuten hitzarmen kolektiboan datorrena baino gutxiago ordainduko balizute, soldata legeztatze eta zor dizutena ordaintzeko eskatu beharko zenuke. Hori, denbora muga baten barruan egin behar duzu: Kobratu gabeko soldata edo kobratzeko falta zaizun dirua erreklamatu dezakezu, gehienez urte baten barruan.

Erreklamazioa egiteko aditu batekin harremanetan jartzea da gure gomendioa. Profesional horrek zure erreklamazioaren ardura hartuko du eta zure mesedetan arituko da.

\* Dantza profesionalen elkarteak lege aholkularitza zerbitzua eskaintzen du (dohainekoa da bazkideentzat), honek prozesuan zehar lagundu eta aholka zaitzake.

Erreklamazio prozesua epaitegietatik kanpo hasten da. Lehenik administrazio bidetik, adiskidetze eskari bat eginez Generalitatearen lan sailaren adiskidetze bulegoan.

Behin erreklamazioa eginda, enpresaria eta irakaslea deituak izango dira adiskidetze ekitaldi batera, adiskidetze bulegoak izendatzen duen abokatu bakegile baten aurrean.

- Ekitaldi hori bi alderdientzat baikorra izan bada ez da ezer gehiago egin behar.
- Adiskidetze ekitaldia egin eta ez bazarete adostasun batera iritsi, berriro egin beharko duzu erreklamazioa epaitegi eta gizarte auzitegietan.

Epaiketa baino lehen, deitu gaituzten egun eta orduan, idazkari judiziala saiatuko da bi alderdiek adostasuna lortzea. Ezinezkoa gertatzen bada epaiketa bat emango da eta sententzi batez bukatuko da.

- Sententziak argituko du eskatzen duzun soldataren zati hori dagokizun edo ez, eta zenbatekoa izan behar duen kopuru horrek.
- Gizarte epaileak eman duen sententziari errekurtsioa aurkeztu diezaiokegu auzitegi gorenean, beti ere erreklamatzeko den diru kopurua gutxienezko bat baino handiagoa bada.

Jakin behar duzu, kobratu behar duzula esaten duen sententzia edukita ere, kobratzea lortu behar duzula. Enpresak ez badizu dirua ordaintzen, epaitegietan sententziaren betetzea eskatu beharko duzu. Hori egin ondoren enpresak ez badu diru nahikoa ordainketa egiteko, soldata bermatzeko funtsean (FOGASA) eskatu beharko duzu zor zaizun diruaren zati baten ardura hartzeko.

\* Soldata bermatzeko funtsak ematen dituen zenbatekoak muga batzuk izaten dituzte.

\* Zure erreklamazioa hartzen duen abokatu edo profesionalak zure eskubideez informatuko zaitu eta prozesua kudeatuko du.

## 4 / 6.

### Zer esan nahi du oporrak eta atsedenaldiak prorratzea?

Zer esan nahi du hainbanatzeak (prorratzeak)? Hainbanatzeak, kopuru bat zati batzuetan banatzea esan nahi du. Gogoratzen duzu langileek aparteko bi paga (eguberritan eta udan) jasotzeko eskubidea dutela?

Enpresa batzuetan aparteko pagak hamabi hileko soldatetan hainbanatzen dira. Horrek esan nahi du hilabeteko soldata handiagoa izango dela, 14 hilabetetan jaso beharreko diru kopurua 12 hilabetetan jasotzen baita.

Ondorioz:

-> Pagak hainbanatuak badituzu lan harremana bukatzen denean ez duzu dirurik jasoko aparteko pagen proportzioaren kontzeptuagatik, kontratua indarrean zegoenean diru hori jaso duzulako.

-> Baina, hainbanatuak ez badituzu, kontratua amaitzerakoan aparteko pagen proportzioaren kontzeptua jasotzeko eskubidea izango duzu.

Azken hori opor eta atsedenaldiekin gertatzen da. Baina, horiek disfrutatzeko lan eskubideak dira. Ez dira eskubide ekonomikoak. Beraz ezin dira hainbanatu, soilik gozatu daitezke.

Hori esanda, eskubide ekonomikotan bihurtuko dira, kontratua bukatu (edozein delarik arrazoia) eta irakasleak ez baititu dagozkion opor egunak disfrutatu.

## 5. LAN ESKUBIDE BATZUK

## 5 / 1.

### Zer gertatzen da kontratua indarrean dagoenean gaixotzen banaiz?

Gaixotzen bazara eta ezin baduzu lanik egin, “ezgaitasunagatik baja denboraldi” batean egongo zara. Denboraldi horretan ez duzu lanera joateko obligaziorik, baina ez duzu soldatarik jasoko (Kasu batzuetan izan ezik, aurrerago azalduko den moduan). Baina kontratatzaileak baja denboraldian zuregatik kotizatzen jarraituko du, kontratuak irauten duen bitartean.

Lanera ezin duzula joan justifikatzeko, medikuntza joan beharko zara eta honek laneko bajaren mediku ziurtagiria emango dizu.

Ziurtagiri hori kontratatzaileari emateko hiru egun izango dituzu. Mediku ziurtagiriaren komunikazioak baja lau egun baino gehiagokoa izango dela aurreikusten badu, medikuarengana itzuli beharko duzu. Ikusten badu dantza egiteko gaizki zaudela bajaren egiaztapen bat emango dizu eta hau ere ikastetxera eraman beharko duzu.

Bajan egon eta lanik egiten ez duzunean, ez duzu soldatarik jasoko, baina aldi baterako ezgaitasun prestazioa jasotzeko eskubidea duzu.

\* Denboraldi bateko ezgaitasun prestazioa jaso ahal izateko alta emanda egon behar zara eta gutxienez azken bost urtetan 180 egun izan behar dituzu kotizatuta. Bestela ez duzu prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubiderik izango.

Dagokizun prestazio ekonomikoa azken hilabeteko soldataren araberakoa da, (lanaldi murriztuko kontratua izanez gero azken hiru hilabeteko soldaten araberakoa izango da) soldata gero eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa

## DANTZA IRAKASLETZAREN LAN KONTRATAZIO GIDA

izango da prestazioan jasoko duzun diru kopurua. Eragiten duen beste gauza zera da, sendagile baja gaixotasun arruntekoa ala lan istripukoa den.

Zalantzak badituzu, gure gomendioa profesional batekin hitz egitea da. Ezgaitasun prestazioaren inguruan interesa baduzu, jakin behar duzu oinarri erregulatzaileraren portzentaje bat dela. Oinarri erregulatzailea sendagile bajaren aurretik izan duzun soldataren araberakoa da.

### 5 / 1 / 1.

#### Aldi baterako ezgaitasun prestazio ekonomikoa nola kalkulatzen da?

Zure prestazioa zenbatekoa den jakiteko oinarri erregulatzailerari portzentaje bat aplikatu behar zaio, baina aplikatu beharreko portzentajea desberdina da sendagile baja gaixotasun arruntekoa bada edo lan istripukoa bada.

a) Gaixotasun arrunt batengatik bada:

- Lehenengo hiru egunetan ez duzu dirurik jasoko.
- Laugarren egunetik hogeigarrenera oinarri erregulatzaileraren %60 jasoko duzu.
- Hogeita batgarren egunetik aurrera oinarri erregulatzaileraren %75 jasoko duzu.

b) Sendagilearen baja lan istripuagatik edo gaixotasun profesionalagatik bada: Bajaren hurrengo egunetik hasita oinarri erregulatzaileraren %75 jasoko duzu.

\* Beraz, laugarren egunetik aurrera oinarri erregulatzaileraren %60 eta %75 jasoko duzu.

Aldi baterako ezgaitasun prestazio ekonomikoa kalkulatzeko adibidea:

Oinarri erregulatzailea kalkulatzeko, (prestazioa kalkulatzeko balio izango diguna) jardunaldi osoko kontratua izanez gero Gizarte Segurantzari egindako kotizazio oinarria 30 zatitan banatu behar duzu. Jardunaldi murriztuko kontratua bada, azken hiru hilabeteetako kotizazio oinarriak batu eta 90 zatitan banatu beharko dituzu.

### 5 / 1 / 2.

#### Nork ordaintzen du prestazioa?

Dirua nominaren bidez jasoko duzu, hau da kontratatu zaituenak ordainduta. Prestazioak duen kostua berriz ondorengoak hartzen dute bere gain:

- Enpresak edo ikastetxeak bajaren laugarren egunetik hamabosgarrenera.
- Hamaseigarren egunetik aurrera Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo mutuak.

Gogoratu, kostua Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak edo ikastetxeak bere gain hartzen duen alde batera utzita, zuk beti enpresaren bidez jasoko duzula dirua. Nominan agertuko delarik prestazioaren zenbatekoa.

### 5 / 2.

#### Zer da ezgaitasun osagarria? Jasotzeko eskubidea dut?

Denboraldi bateko ezgaitasun osagarria, bere izenak esaten duen bezala, aplikagarria den talde hitzarmenak horrela ezartzen duenean, langilea lan gaixotasun batengatik bajaran dagoenean, enpresak langileari ordaindu beharreko osagarri bat da.

**Gida honetan aipatutako hitzarmenen artean, denek diote langileek osagarria jasotzeko eskubidea dutela ondorengo baldintzak ematen badira:**

- 1) Arte lanbideak, Aplikatutako arteak, Musika ikasketak, Ile-apaindegi eta estetika ikasketak ematen dituzten eskolen estatuko hitzarmen kolektiboa: Enpresak lehenengo hiru hilabeteetan denboraldi bateko ezgaitasunaren prestazioarekin langilearen soldataren %100 osatu beharko du.
- 2) 2008-2016 Kataluniako Eraginkortasun Mugatuaren Hezkuntza eta Formakuntza Ez Arautuaren Hitzarmen Kolektiboa: Enpresak lehenengo hiru hilabeteetan denboraldi bateko ezgaitasunaren prestazioarekin langilearen soldataren %100 osatu beharko du.
- 3) 2010-2014ko diru publikoarekin guztiz edo neurri batean laguntzen den Kataluniako irakaskuntza pribatuaren hitzarmen kolektiboa: Enpresak lehenengo hiru hilabeteetan denboraldi baterako ezgaitasunaren prestazioarekin langilearen soldataren %100 osatu beharko du. Kontzertatutako mailetan %100 gutxienez lehenengo zazpi hilabeteetan.
- 4) Diru laguntza jasotzen ez duten eta kontzertatuak ez diren, erregimen orokorreko ikastetxe pribatu eta ikasketa arautuak eskaintzen dituzten IX. Hitzarmen kolektibo nazionala: Enpresak lehenengo hiru hilabeteetan denboraldi bateko ezgaitasunaren prestazioarekin langilearen soldataren %100 osatu beharko du. Ezgaitasuna lan istripu batek eragindakoa bada, enpresan emandako trienio bakoitzarengatik hilabeteko soldata bat abonatu da.
- 5) Kataluniako aisialdi hezitzailea eta soziokulturalaren hitzarmen kolektiboa, 2005-2007: Hitzarmen honetan enpresak lehenengo egunetik hamabosgarrenera soldataren %85 osatu behar du. Hamaseigarren egunetik laurogeita hamargarrenera soldataren %100 osatu beharko du. Baja lan istripu, gaixotasun profesional edo ebakuntza eta ospitalizazioa eskatzen duen gaixotasun arruntarengatik bada, enpresak gehienez hemezortzi hilabetez, soldataren %100 osatu beharko du.

### 5 / 3.

#### Eta gaixotasunak jarraitzen duen bitartean kontratua bukatzen bada?

Denboraldi bateko ezgaitasun prestazioa jasotzen eta bajaran zaudelarik kontratua bukatzen bada, prestazioa jasotzen jarraitzeko eskubidea duzu.

Prestazioa ordaintzen zuena enpresa izanez gero (ohikoena), Gizarte Segurantzako Instituto Nazionalari edo mutuari eskatu beharko diozu ordaintzea.

\* Ez duzu ahaztu behar prestazioa Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaletik edo mutuatik jasotzen baduzu, sendagilearen bajaren egiaztagiriak eraman beharko dizkiezula. Alta hartzerakoan ere jakinaren gainean jarri beharko dituzu.

Kontratua bukatzean eta denboraldi bateko ezgaitasun prestazioa jasotzen jarraituko duzun arren, lan eskatzaile moduan izena eman beharko duzu lan bulegoko okupazio zerbitzuan. Hitzordua eskatu beharko duzu [www.sepe.es](http://www.sepe.es) webgunean.

### 5 / 4.

#### Eta gaixotasuna kontratua bukatu zaidanean hasten bada?

Gertatu daiteke jadanik lanean ez zaudenean, eta beraz, Gizarte Segurantzaren alta emanda ez zaudenean, ezta langabezia jasotzen ere gaixotzea edo istripuren bat izatea eta sendagile baja izatea.

Kasu horietan ez duzu eskubiderik inongo prestazio ekonomikorik jasotzeko.

## 5 / 5.

Ikastetxe batean nabil lanean eta istripu larri bat izan dut. Zer gertatzen da alta emanda ez banago?

Sendagileak artatuko zaitu, baina alta emanda ez bazaude bai zuk eta bai ikastetxeak arazo larri bat duzue.

Istripuaren ondorioz izan dezakezun min eta ondorioez gain, ezgaitasun prestazioa jasotzeko erreklamazioz betetako bide luze bat egin beharko duzu.

Ez baduzu ezer egiten, ez duzu inolako eskubiderik izango. Zer edo zer egiten baduzu kontratatu zaituenak kalte ordaina eman beharko dizu, bestela epaitegietara eraman beharko duzu.

## 6. LAN ESKUBIDE BATZUK

### 6 / 1.

Nola bukatu daiteke kontratua?

**Ondorengo arrazoi hauetariko batengatik bukatu daiteke kontratua:**

- Nahita hartutako baja: Lana egiteari utzi nahi diozu kontratua bukatu aurretik.
- Kontratua bukatutakoan: Kontratua bukatzeko aurreikusitako data iritsi da, edo kontratatuta izan zinen proiektu edo denbora amaitu da, edo ordezkaten ari zinen langilea lanera bueltatu da.
- Diziplinazko kaleratzea: Zure betebeharrak ondo ez egiteagatik botatzen zaituzte.
- Arrazoi objektiboengatik etetea: Arrazoi produktibo, ekonomiko edo antolakuntza arrazonamenduak (zure lanpostua ezin dutelako mantendu, zenbakiak ez direlako ateratzen edo ez daude nahikoa ikasle...) direla eta kontratua etetea.
- Bi aldeen artean adostuta.

\* Ez duzu ezer galtzen abokatu bati ea kontratuaren amaiera modu egokian eman den galdetzen badiozu eta zure langile eskubideak errespetatu diren.

### 6 / 2.

Zer gertatzen da ikastetxea kontratuaren amaiera baino lehen utzi nahi badut?

Lehenik eta behin, talde hitzarmena begiratu behar duzu zenbat egun lehenagotik abisatu behar duzun jakiteko. Ez baduzu behar den denboraz abisua pasatzen, soldatatik dirua kentzeko eskubidea izango dute. Abisua pasa behar zenuen egunetik, abisatu duzun eguna arte pasa diren egunetako soldata kentzeko eskubidea izango dute.

Gainera, egonaldi paktu bat sinatu baduzu eta horren arabera denbora epe batean ezin baduzu borondatez lan harremana eten, errespetatu egin beharko duzu. Hau da...

- Egonaldi paktu bat sinatu baduzu, paktuak irauten duen denboran ezingo duzu ikastetxea utzi. Egiten baduzu kalte-ordain bat eskatzeko eskubidea izango du ikastetxeak, eragindako kalteen ordainetan.
- Ez baduzu inolako pakturik sinatu, nahi duzun momentuan lana uzteko aukera duzu.

Hortaz, ez baduzu inolako pakturik sinatu kontratatzen zaituenarekin lana nahi duzunean utzi dezakezu, beti ere nahikoa denborarekin abisatzen baduzu.

### 6 / 3.

## Eta eskolak esaten badu kontratua alde aurretik bukatzen dela?

Hori kaleratze bat da eta idatzi batekin jakinarazi behar dizute, besteren artean, erabaki hori hartzearen zergatia eta kaleratzearen data.

Erabaki hori hartzeko arrazoia zein izan den eta kaleratzea jakinarazi den moduaren arabera, kalte-ordainaren ordainketa eskatu dezakezu.

**Kalte-ordainaren zenbatekoa 0€tik lana egindako urte bakoitzeko 33 eguneko soldatakora izan daiteke. Adibidez:**

**a)** Diziplinazko kaleratze bat izanez gero, hau da, zure betebeharrak bete ez dituzulako (modu larri eta errudunean), ez duzu inongo diru-ordainik jasotzeko eskubiderik.

\* Kontuz, hori praktikan gertatzea oso zaila da. Zure arau haustea oso larria izan behar du bidezko kaleratzea izateko.

\* Egoera horretan baldin bazaude, aholkularitza legala premia handiz bilatu.

**b)** Beste edozein kasu batengatik kaleratzen bazaituzte, kalte-ordain bat jasotzeko eskubidea daukazu. Zenbatekoa enpresariak arrazoitzen duen zergatiaren arabera izango da:

- Zergatia objetiboa bada (hau da, zuri egozgarria ez bada. Ikastetxearen egoera, galera ekonomikoa, ikasle falta... baldin badira arrazoiak ) kalte-ordaina kalkulatzeko 20 egunetako soldata hartzen da lan egindako urte batengatik. Gehienez 12 hileko soldata izango dira.
- Zergatia dena delakoa delarik, kaleratzea bidegabekoa dela ebazten bada, kalte-ordaina 23 egunetako soldata izango da lan egindako urte bakoitzarengatik.
- Kontratuan hitzartutako data baino lehen mozten bada kontratua, edo kaleratze bidegabe bat (hau da, enpresarioak aitortzen badu Generalitateko lan sailari dagokion epaile edo abokatu bakegile baten aurrean zure hutsegitea gezurra dela, edo ez dela hain larria onartzen badu) orduan kalte-ordaina gehienez hogeita hamahiru egunetako soldata izango da lan egindako urte bakoitzeko eta gehienez 24 hileko soldata izango dira. Baina 2012/2/11 data baino lehenagotik lanean ari bazinen eskolan, kalte ordaina 45 egunetako soldatakora izango da lan egindako urte bakoitzeko. Data horren ondoren 33 eguneko.

### 6 / 4.

## Kontratua bukatu da, ba al daukat nolabaiteko kalte-ordainaren eskubidea?

**Lan kontratu motaren eta kontratua amaitzeko arrazoiren arabera izango da. Hainbat aukera ikusiko ditugu:**

**a)** Kontratua zuk nahi duzulako amaitzen bada: ez duzu inongo kalte-ordain eskubiderik.

**b)** Kontratuan zehazten den amaiera epea iristeagatik amaitzen bada: KALTE-ORDAIN eskubidea daukazu, hain zuzen, lan egindako urte bakoitzeko 12 eguneko soldata, baldin eta interinitate kontratua izanez gero, kasu horretan ez duzu kalte-ordain eskubiderik.

\* Gogoratu, kaleratzen bazaituzte kalte-ordaina eskubidea daukazu, “zer gertatzen da eskolak kontratua aldeztu aurretik bukatzen dela esaten badu” atalean baldintzak azaltzen dira (ikus aurreko atala)

## 6 / 5.

### Zer dokumentu eman behar dit enpresariak kontratua bukatzean?

Kontratua bukatzean, kontratua bukatzen dela esaten duen eskutitzaz gain (horrela izanez gero), enpresariak likidazio dokumentua edo kitapena eta kotizatzen egon zaren egun guztiak jasotzen dituen ziurtagiria eman behar duzu. Ziurtagiri horretan Gizarte Segurantzaren alta emanda egon zaren egunak agertuko dira eta kontratatu zaituenak zuretzat deklaratu dituen kotizazio oinarriak.

## 6 / 6.

### Lana egiteari uzten badiot langabezi prestazioa jaso dezaket?

Gogoz kontra lanik gabe geratzen bazara, lanetik bota zaituztelako edo kontratua bukatu zaizulako langabezi egoeran zaude, ondorioz, langabezi prestazioa jasotzeko betebeharrak guztiak betetzen badituzu, jasotzeko eskubidea izango duzu.

**Prestazioa jasotzeko betebeharrak hauek dira:**

- Gizarte Segurantzaren afiliatua egon alta egoeran edo egoera parekatu batean (adibidez langabezia)
- Langabezi egoera edo kotizatzeari utzi behar diogun momentuaren aurreko 6 urteak kontutan hartuz, gutxienez 360 egun kotizatuak izan.
- Modu legalean langabezi egoeran egon.
- Lana modu aktiboan bilatzeko eta ezarpen egokia onartzeko zure burua izendatu aktibitate konpromisoan harpidetuz.
- Erretiroa hartzeko ohiko adina bete ez izana.

Prestazioa jasoko duzun denbora, eskubidea izanez gero, langabezi egoera aurreko 6 urteetan kotizatuak dituzun egunen arabera izango da. Prestazioa jasotzeko gehienezko denbora bi urtetakoa da.

## 6 / 7.

### Erretiroa hartu ahal izango dut?

Erretiroa eskubide bat da eta ez betekizun bat, beraz, erretiroa hartzeko adina duzunean (65 eta 67 urteen artean, noiz jubilatzen zaren eta kotizatutako denboraldien arabera) eta gutxienez hamabost urte kotizatuak dituzunean izango duzu eskubidea. Gainera, horietatik bi erretiro garaitik hasi eta azken hamabost urteetan kotizatutakoak izan behar dute.

Erretiro pentsioa zenbateko hauen arabera da:

- Oinarri erregulatuak. Erreferentzi denboraldi batean kotizatutako oinarrien zenbatekoari egiten dio erreferentzia.
- Oinarri erregulatuak aplikatu beharreko portzentajea, hori handitzen doa langileak kotizatutako urte kopuruarekin batera.

Ateratzen den zenbatekoari muga batzuk jartzen zaizkio, gehienezko eta gutxienezko kopuru legalak. Behin betiko pentsioaren zenbatekoari pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga egin beharreko errentzia kentzen zaio.

Jakin behar duzu, berez horretarako ezarrita dagoen adina baino lehen erretiroa hartu dezakezula. Horretarako kotizatutako denboraldi zehatz batzuk eta adin zehatz bat izan beharko dituzu. Aurreratutako erretiroa bezala ezagutzen da. Hori hartzeko aukera baduzu, jakin behar duzu pentsioaren zenbatekoa gutxiago izango dela bizitza osoarako. Ez baduzu pentsioa jaiste nahi, erretiroa hartzeko zehaztuta dagoen adina izatera itxoin behar duzu.

- Artistek 60 urtetik aurrera gozatu ahal izango dute aurreratutako erretiroa.

Erretiro partzialaz ba al dakizu zer edo zer? Erretiro partzialak enpresariekin adosten duten langileei, lan orduak eta ondorioz soldata murriztea ahalbidetzen die. Aldi berean, erretiro pentsioa jasotzeko aukera dute. Modu horretan erretiro pentsio partziala eta lanaldi murriztutik jasotzen den soldata murriztua jasoko da. Jasoko duen erretiro pentsioa kalkulatzeko, lanaldia % zenbatean murriztu duen jakin behar da. Murriztutakoaren ordainetan jasoko delako pentsioa.

Gaur egun honako erretiro partzial aukerak daude:

- Atzeratutakoa: Erretiroa hartzen duenak legalki horretarako ezarrita dagoen adina bete du.
- Aurreratutakoa: Erretiroa hartzen duenak ez du legalki horretarako ezarrita dagoen adinik. Aurreratutako erretiro horrek, enpresariaren eta langilearen arteko adostasun bat eskatzen du. Enpresariak beste pertsona bat kontratatu behar du, aurreratutako erretiroa hartzen duen pertsonak egingo ez dituen lan orduak betetzeko.
- Autonomoek ez dute erretiro partziala hartzeko aukerarik.

## 7. LANA ATZERRIAN

### 7 / 1.

#### Eskolak atzerrian emateko kontratatu didate. Zer edo zer egin behar dut?

Espainiako Gizarte Segurantzaren alta emanda bazaude (autonomo moduan edo beste norbaitek kontratatuta) eta Europako beste herrialde batera bazoaz eskolak ematera, lehenik eta behin Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra joan behar duzu eta ondoren Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalera. Bertan desplazamenduaren berri eman behar duzu eta lanaldi horri, Espainiako legea aplikatzeko borondatea erakutsi.

\* Bi administratzen dokumentu bana emango dizute, atzerrian lanean ari zaren bitartean osasun-zerbitzuak behar izanez gero, Espainian bezala artatuko zaituzte.

Denbora bateko desplazamendua izan beharrean, kanpoko kontratante edo ikastetxe batek kontratatzen bazaitu Espainiatik kanpo lan egiteko, begiratu behar da herrialde horretan zein den aplikatu beharreko araudia eta zer



motatako Gizarte Segurantzaren dagoen.

### Ondorengo ezaugarrien arabera zehaztuko da:

- Kontratuan adostutakoa.
- Lan kontratua gauzatzeko den lekua.
- Lana aurrera eramango den lekua.
- Kontratatzaileak gizarte egoitza duen herrialdea.
- Kontratatzaileak bere lana aurrera eramaten duen herrialdea.

## 8. BESTE EGOERA BATZUK

### 8 / 1.

## Koreografoa ere banaiz

Koreografoa izatea dantza lanaren sortzaile zarela esan nahi du. Eta hori irakasle izatearen independente da. Izatez, orokorki bategarri egin ditzakezun bi ekintza dira.

### Koreografoa izanik, hainbat egoera gerta daitezke honako hauek adibidez:

- 1. egoera. Zuk dantzariak kontratatzen dituzu eta eurak zure aginduak jarraituz egiten dute lan eta horren trukean zuk ordaindu egiten diezu.
  - Laboralki zu zara enpresaria eta dantzariak zure langileak. Ondorioz, Gizarte Segurantzaren autonomoetan alta emanda egon behar duzu eta zure interpretariei kontratua egin behar diezu, Gizarte Segurantzaren alta eman, euren soldata ordaindu eta euren langile gisa kotizatu.
- 2. egoera. Norbaitek kontratatzen zaitu (ikuskizun aretoak, ikuskizunen alorreko elkarte batek, dantza konpainiak, etabar) ikuskizuna lan kontratu baten bidez zuzentzeko.
  - Dantzariak dantza konpainiagatik kontratatuak eta Gizarte Segurantzaren altan egon behar duten bezala, zu ere egoera berdinean zaudete: enpresariaren beste langile bat zara, beste kategoria eta zeregin batzuekin. Kasu horretan Gizarte Segurantzaren artisten erregimenean emango dizute altan.
- 3. egoera. Norbaitek kontratatzen zaitu (ikuskizun aretoak, ikuskizunen alorreko elkarte batek, dantza konpainiak, etabar) ikuskizuna kontratu merkantil baten bidez zuzentzeko eta...
  - 3.1 Dantzariak, enpresariak edo koreografia eta zuzendaritza eskatu dizun konpainiak kontratatzen ditu.
  - Independentzi osoarekin lana egiten duen kanpoko profesional bat zara (autonomo bat) konpainiarekiko duzun harreman merkantila da eta interpretariekiko zu zara kontratatu eta aseguratu behar dituzunak.
  - 3.2. Zuk kontratatzen dituzu dantzariak.
  - Konpainiarekiko kanpo langile bat zara, independentzi osoarekin jarduten duena (beraz, autonomia zara). Interpretatzaileekin berriz, haien gidari zara eta kontratatu, ordaindu eta aseguratu ere egiten dituzu (enpresaria zara).

- Hala ere, aurreko egoera guztiak irakasle lanarekin bateragarriak dira (kontratuan edo legearen arabera kontrakoa esaten ez den bitartean). Horregatik, Gizarte Segurantzaren alta emanda egongo zara irakasle moduan baita beste lanari ere dagokion erregimenean. Gizarte Segurantzaren bi lanen berri eman behar duzu.

Ez ahaztu koreografoa bazara egile eskubideak dituzula, dantza pieza baten sortzaile zara eta horren gaineko egile eskubideak dituzu. Ondorioz, zu zara bere erabilera baimenduko duena. Egilearen lana beste koreografo batzuekin partekatzen baduzu, denek dituzue obraren egile eskubideak.

## 8 / 2.

### Dantzaria ere banaiz

Irakaslea izateaz gain dantzari ere kontratatuta bazaude, irakasle kontratua mantendu dezakezu eta irakaslearen Gizarte Segurantzaren alta mantendu, aldi berean, boloak edo entsaioak egitean, artista moduan kontratatuta egongo zara eta Gizarte Segurantzaren Artisten Erregistroan alta emanda.

\* [Dantzarien Kontratazio Gida kontsultatzea gomendatzen dizugu.](#)

## 8 / 3.

### Zer da autonomo faltsu bat?

Autonomo faltsu bat Ogasunean alta emanda Gizarte Segurantzaren autonomo erregimenean egon arren, errealitatean ez du bere buruarentzako lana egiten, baizik eta, beste batentzat egiten du, bere agindupean, bere erakundearen esparruan, bere medioekin, soldata bat kobratzen, etabar.

Autonomo faltsuak, beste batentzako lana egin eta euren lotura harreman laboral baten ezaugarriak izaten dituen arren (dependentsia eta lerrokatzea bereziki) formalki ez dago kontratatuta ez eta Gizarte Segurantzaren langile gisa altan emanda, horren ordean, autonomo moduan dago eta faktura bitartez kobratzen du, nomina bitartez kobratu ordez.

## 8 / 4.

### Beltzean lana egitea erabakitzen badut, zeintzuk dira arriskuak?

Beltzean lana egitea erabakitzen baduzu iruzurra egiten duzu, izan ere, zure etekinak ez dituzu Ogasunera aitortzen eta ondorioz, zergadun betebeharrak ez dituzu betetzen.

Modu berean, zure buruari ere kalte egiten diozu, etorkizun posible batean langabezia, gaixotasun edo erretiro egoera bateko ekarpen eza dagoelako. Modu horretan, lan gabe geratzen bazara, ez duzu langabezi prestazio eskubiderik izango, gaixotuz gero, ez duzu prestaziorik jasoko eta erretiroa hartzen duzunean, ez duzu beharrezkoa den gabetasun denboraldirik izango erretiro pentsioaren osotasuna izateko eskubiderik.